


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2020/01/07)	Urtarrileko eta otsaileko ekintzen plangintza	Datozen bi hilabeteetan burutuko diren ekintzen plangintza antolatu da: mendi irteera (urtarrilak 12), Herri Batzarra (urtarrilak 18), Kopla tailerra (urtarrilak 24), Koplen emanaldia (otsailak 2), herriko produktuak erabiliz, pizza tailerra (otsailak 15), Inauteri festa eta afaria (otsailak 22).	Ekintza bakoitzarentzat berariazko jakinarazpena prestatu aldian aldian.
Hurrengo saioa: (2020/01/21)	Herri Batzarra	Batzarrerako gaia bakarra izango da: Itsaso 2030 Parte-hartze prozesuaren emaitzak ezagutzeko eta 2030erako nolako herria irudikatu dugun ikusteko. Urtarrilaren 18an egingo den Herri Batzarrerako deialdia prestatu da eta banaketa antolatu ere.	

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2020/01/14)	Kopla tailerra eta emanaldia	Urtarrilaren 24an, Kopla tailerra eta otsailaren 2an, Koplen emanaldiari buruzko jakinarazpena prestatu eta banaketa antolatu da.	
Hurrengo saioa: 2020/01/28	Wifi sarea	Europar Batasunetik Wifi4EU programako diru-laguntzari esker, Itsasoko plazan eta inguruetan eta Alegian plaza eta inguruetan, dohako Wifi-a jarri dela jakinarazpena prestatu eta banaketa antolatu da.	

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena 2020/01/15	Udaletxeko proiektua	Goiko solairuko zoruan hormigoia bota beharrean egurrezko 9 cm lodiera duten panelak jarriko direnez, zorua nibelatzeko egurrezko rastrelak kuartoi gainetan jarriko dira. Izan ere, 22 cmko aldea dago une batzutatik besteetara. Hartu zen erdiguneko puntutik 10 cmkoa. Berez panel hauek isolatzaile termiko gisa funtzionatzen dutenez, gainean lamina anti-inpaktoa eta	Gutxi falta da proiektua bukatzeko: Teknaliakoen datu batzuk eta arkitektoak behar duen beste astebete. Ondoren bisatzera bidaliko da.



ITSASOKO

UDALA

(GIPUZKOA)

Hurrengo saioa: (2020/01/29)		<p>bukatzeko egur laminatu flotantea (9 mm). Hormigoizko forjatuarekiko aldea 2-3 cmkoa izango da.</p> <p>Era honetara apuntalatzeak saihestuko dira, sabaia osoa kendu beharrik ez da izango eta ez da ia hilabete itxaron beharrik ere dena lehortu arte.</p>	“Línea de vida” ere erantsiko zaio proiektuari.
	Alegiako frontoiko ordenantzak	Batez ere argiteria berriaren doako funtzionamendua eguneratu da eta frontoian ikusgai jartzeko Euskorotera bidaliko dira formatoa erabaki ondoren.	Argiak pizteko pultsagailua non dagoen ere adieraziko da
	WIFI irekia dohainik	Itsasoko eta Alegiako guneeetan dagoeneko Wifi irekita konekta gaitzke. Europar programa bati esker kokatu ahal izan da. Konektatzeko baldintzak onartzea eskatzen du, baina lehen aldian bakarrik. Ondoren, programa honetan parte hartu duten gainerako herri eta hiri guztietan ere sarbidea irekia izango dugu, zuzenean.	Bi guneeetan Wifi Irekia dagoela adieraziko da ikur edo kartelez